

LEIOA BLOG LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. **Deialdia egiten duena:** Leioako Udala da LEIOA BLOG LEHIAKETAREN antolatzailea, Leioako Elexalde kaleko 1. zenbakian kokatua (IFK: 4806400J).
2. **Xedea:** Leioa Blog Lehiaketaren helburua blogen fenomenoaren sustatzea da, hautatutako irabazlea ezagutaraziz eta jendartean duen esangura aitortuz; era berean, Leioako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak sustatu nahi dira, hiria merkataritza-, aisialdi- nahiz kultura-espazio handi bat den neurrian.
3. **Datak:** Ekitaldia urriaren 2an eta 3an ospatuko da, eta urriaren 2an emango zaio hasiera, hain zuzen ere, 16:30ean, Mendibile Jauregian. Urriaren 3an, 10:30ean, Leioako moda-argitalpen bat egingo dute herriko merkatariek, eta parte hartzaileak protagonista izango dira. Herriko lekurik interesgarrienak aukeratu dira. Argitalpen guztiak ezagutu eta 48 ordura irabazlea nor den jakinaraziko da.
4. **Parte hartzaileak:** Gaztelaniaz edota euskaraz idatzitako sareko edozein blog, liburu edo eguneroko pertsonal, betiere, alde aurretik izena ematen bada; horretarako inprimaki hau bete behar da webgune [honetan](http://bit.ly/1KT1DYy) <http://bit.ly/1KT1DYy>, eta honako helbide honetan ere eskuragarri dago: www.behargintzaleioa.net.
5. Lehiaketatik kanpo geratuko dira antolakuntzan dauden pertsonen blogak, baita enpresa babesleenak ere. Antolatzaileek uneoro eta aurretiaz abisatu gabe blogak erretira ditzakete, lehiaketa irabazteko asmoz horietan jarduera ezohikoak egon direla susmatuz gero.

6. **Garapenaren faseak:**

Lehen fasea: Parte hartu nahi izanez gero, blogger interesatuek aurrez izena eman behar dute 2015eko urriaren 5era bitarteko epean.

Bizkaiko edo estatuko edozein bloggerrek har dezake parte.

Bigarren fasea: Izena emandako bloggerrek urriaren 9an, 16:00etan, Mendibile Jauregira joan behar dute. Orduan emango dizkiete lehiaketa behar bezala aritzeko argibideak. Hitzordu nagusi horretara joaten ez direnak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Parte hartzaileek bi argitalpen egin behar dituzte; bata, Leioako kultura-, gastronomia- eta aisialdi-ekintzen harira bizitako esperientzia propio bati buruzkoa, eta, bestea, look bat prestatzeko tokatu zaizkien saltokiei edo saltokiari buruzkoa.

Look bat aukeratu behar dute bloggerrek, eta horretarako eremu batean kokaturik dauden hiru denda esleituko zaizkie. Dagokien eremuaren eta parte hartuko duten denden zerrenda bat gehituko da. Lehiakideek look berriak sortzeko duten originaltasuna, gustu ona eta kalitatea sarituko dira.

Hirugarren fasea: Ekintza egin eta 48 ordura testuak argitaratu behar dira, aztertzeko eta ebaluatzeko.

7. **Erabakia eta sari-banaketa:** Moda diseinatzailez, kazetariz eta merkatariz osatutako epaimahaiak erabakiko du lehiaketako irabazlea nor den; saria 3.000 euroko laguntza ekonomikoak eta bi hilabetez community manager gisa jarduteko aukerak osatuko dute, epaimahaiak erabakia hartzen duenetik kontaktzen hasita. Tarte horretan 50 argitalpen egin beharko ditu Leioako merkataritza, ostalaritza, zerbitzu eta herriari buruz, eta astero goiz bat, bi ordu, igaro BEHARGINTZA LEIOAren egoitzan, koordinazio bilerak eta argitalpenen jarraipena egiteko.
8. **Pribatutasun politika:** Lehiaketan ezarritako prozedurei jarraiki datu pertsonalak boluntarioki ematen dituzten bloggerrek espresuki baimena ematen diete antolatzaileei datuok Behargintza Leioaren pribatutasun politikan zehaztutakoaren arabera erabiltzeko, betiere, datu pertsonalei eta informazio gizartearen zerbitzuari buruz indarrean dagoen legeria betez.

Edozein erabiltzailek bere datu pertsonalak ikusteko, zuzentzeko eta baliogabetzeko eskubidea baliatu ahal izango du uneoro, pribatutasun politikan ezarritako prozeduraren bitartez.

9. **Oinarriak onartzea:** Lehiaketan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa da oinarri hauek guztiak onartzea, baita antolatzaileek lehiaketan zehar egin ditzakeen interpretazio eta egokitzapenak ere.